

BANAKAKO EBALUAZIOA

2014-15

Lehen Hezkuntzako 3. ikasmaila

Azken txostena

2015eko abuztua

HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN ZERBITZUA
EBALUAZIO ATALA

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
1.1 Ebaluazioaren izaera zentsala.....	4
1.2 Matrikularen eta parte-hartzearen datuak.....	5
2. Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna.....	7
2.1. Gaztelaniazko irakurmena.....	7
2.1.1 Item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa.....	7
2.1.2 Irakurmen mailen zenbakizko zehaztapena.....	9
2.1.3 Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.....	9
2.1.4. Emaidza orokorrak.....	12
2.2. Gaztelaniazko ekoizpen idatzia.....	16
2.2.1 Mailen zenbakizko zehaztapena.....	17
2.2.2 Gaztelaniazko ekoizpen idatziaren emaitza orokorrak.....	17
2.2.3 Banaketa mailaz maila.....	17
2.2.4 Banaketa, sexuaren arabera.....	19
2.2.5. Puntuazioen banaketa.....	20
3. Euskarazko hizkuntza gaitasuna.....	21
3.1. Euskarazko irakurmena.....	21
3.1.1 Item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa.....	21
3.1.2 Irakurmen mailen zenbakizko zehaztapena.....	23
3.1.3. Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.....	23
3.1.4. Emaidza orokorrak.....	26
3.2. Euskarazko ekoizpen idatzia.....	30
3.2.1 Mailen zenbakizko zehaztapena.....	31
3.2.2. Euskarazko ekoizpen idatziaren emaitza orokorrak.....	31
3.2.3 Banaketa mailaz maila.....	31
3.2.4 Banaketa, sexuaren arabera.....	32
3.2.5. Puntuazioen banaketa.....	34
4. Matematika gaitasuna.....	35
4.1. Item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa.....	35
4.2. Mailen zenbakizko zehaztapena.....	36
4.3. Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.....	36
4.4. Emaidza orokorrak.....	39
4.5. Puntuazioen banaketa.....	42
5. Ingeleseko hizkuntza gaitasuna.....	43
5.1. Ingeleseko irakurmena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa.....	43
5.2 Mailen zenbakizko zehaztapena.....	45
5.3. Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.....	45
5.4. Emaidza orokorrak. Ingeleseko irakurmena.....	49
5.5. Puntuazioen banaketa.....	52
6. Aldagai sozioekonomiko eta kulturala (ISEK).....	53
6.1. ISEKa.....	53
6.2. Erregresio-zuzenak.....	56
6.3. ISEKaren banaketa.....	63

Oharra: zuzendari, irakasle, ikasle, aplikatzaile, zuzentzaile, tutore eta guraso terminoekin gizonetzkoak zein emakumezkoak hartzen dira kontuan.

1. Sarrera

Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren (LOMCE) 20. artikulua xedatzen du Lehen Hezkuntzako hirugarren ikasmila bukatutakoan ikastetxe guztiek ikasleen banakako ebaluazioa egiten dutela, trebetasunak, ahalmenak eta abileziak zer mailatan menderatzen dituzten egiaztatzeko. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak ditu:

- Zentsala da, Lehen Hezkuntzako 3. ikasmilako ikasle guztiek egin behar dute.
- Trebetasunak, ahalmenak eta abileziak ebaluatzen ditu.
- Informatiboa, ikasleendako eta familiendako.
- Prestakuntzako, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2014-2015 ikasturteko ebaluazio diagnostiko zentsalean irakas-hizkuntzetako hizkuntza gaitasuna, matematika gaitasuna eta ingelesezko hizkuntza gaitasuna landu dira. Probak, erreferentzia gisa, Hezkuntza Ministerioak argitaratutako Lehen Hezkuntzako hirugarren ikasmilako ebaluazioaren esparru teorikoan oinarritzen dira.

Errendimendu probak Ebaluazio Atalak prestatu ditu, irakasleek taldeka egindako lanetik abiatuak. Beraz, kanpokoak izan dira ikastetxeendako, eta ikastetxe guztietan egun beretan aplikatu dira eta aurrez finkaturiko irizpideen arabera zuzendu dira.

Ekainaren hasieran ikastetxeek ikasleen emaitzak jaso zituzten, ikasle bakoitzaren txosten bat egiteko helburuarekin. Txosten horren berri eman zitzaion familiei ikasturtea bukatzean.

Egun beretan, ikastetxeek Educa aplikazioaren bitartez txosten osoa eskuratu zuten. Hartan honako datu estatistiko hauek agertzen dira: batez besteko puntuazioa, desbideratze tipikoa, gaitasun mailaren arabera ikasleen banaketa, itemetan zuzen erantzundakoen ehunekoak, talde edo gela bakoitzeko batez besteko puntuazioa eta errendimenduaren eta ISEK aldagai sozioekonomikoaren arteko erregresioari buruzko informazioa. Ebaluatoriko gaitasunaren arabera informazioa tauletan eta grafikoetan eman zen.

Txosten hau aurretik emandako informazioa osatzera dator. Ikuspegi orokorragoa ematen dio, ikasle guztiak eta proben ezaugarriak ardatz gisa harturik. Txosten honetan garrantzi handia du gaitasun mailen esanahiak eta, gainera, item bakoitzean ebaluatoriko prozesua adierazten da. Ikasleen puntuazioaren banaketa islatzen duten histogramak aurkeztu eta banaketa normalarekiko konparazioa egiten da.

Eta ataletako batek ikastetxeen batez besteko errendimenduaren eta ISEKaren batez besteko balioaren arteko korrelazioa aztertzen du. Gaitasun bakoitzari dagokion erregresio-zuzena irudikatzen da eta horri esker ikus daiteke zenbateko inpaktua edo eragina duen aldagai sozioekonomiko eta kulturalak ikastetxeen batez besteko errendimenduan.

1.1 Ebaluazioaren izaera zentsala

2014-2015 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 3. ikasmilako matrikula, osotara, 6.646 ikaslekoa izan zen. Ikasle horiei zuzendu zaie banakako ebaluazioa.

2014-2015 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 3. ikasmilan matrikulatutako ikasle guztiek banakako ebaluazioa egin behar zuten. [Egokitzapen motaren bat behar duten hiru kasu hartu dira aintzat.](#)

A. “Irisgarritasuneko egokitzapenak” behar dituzten ikasleak.

Kasu honetan, probaren edukia aldatu gabe, beharrezkoa den irisgarritasuneko egokitzapena egin da (braillea, letra handitzea, proba irakurtzea dislexiako zenbait kasutan...) edo, bestela, ingurune aldagairen bat kontrolatu da (denbora gehiago, ingurune isilagoa...).

B. Curriculum atzerapenak dituzten ikasleak.

Ebaluazio honen ondorioetarako, ikasle batek curriculum atzerapena duela jotzen da Lehen Hezkuntzako 2. ikasmilako matematika eta hizkuntza arloak aldi berean gainditu gabe baditu edo, gaindituak baditu baina curriculum egokitzapenarekin, eta curriculum egokitzapen hori Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako lehen ikasmilako mailari badagokio. Kasu hauetan emaitzak ez dira Educa aplikazioan sartuko.

Kasuistika honetan sartzen diren ikasleek lehen fase batean gainerako ikasleek egiten duten proba bera eta baldintza beretan egin dute. Bigarren fase batean, behin saioa bukatuta, proba egiten jarraitu dute behar dituzten egokitzapenekin. Ikastetxea arduratu da egokitzapen horiek modu pertsonalizatuan egiteaz. Banakako txostena modu pertsonalizatuan idatzi da eta bertan adierazi dira erdietsitako ikaskuntzako estandarrak eta lortutako ebaluazioa, eta etapako lehen, bigarren edo hirugarren ikasmilari dagozkion.

Beste batzuen artean, ondoko neurriak har ditzakegu kontuan A) eta B) puntuetan jasotako kasuetarako:

Kokapen egokia ikasgelan.

Letra tamaina handitzea.

Ikasleak proba egiteko jarraibide orokorrak eta, kasua bada, ariketa edo ataza zehatz baten berariazko jarraibideak ulertu dituela egiaztatzea.

Ikaslea proba arreta edo denbora gehiegi galdu gabe egiten ari dela egiaztatzea, modu indibidualizatuan.

Ahalegina sendotzea eta estimulatzea, ikaslea lagunduz ariketarekin segitzen edo proba egiten, ariketa eman baino lehenago galdera guztiak erantzun dituela gainbegiratur, etab.

Ikaslearen espedientean, dagokion atalean, BP (Berreskurapen Plana) siglak idatziko dira eta, jarraian, gainditutako estandarrei dagokien ikasmila.

C. EDUCAn erroldaturiko adimen desgaitasuna duten ikasleak.

Ikasle hauek Ebaluazio Atalak NHBBZrekin lankidetzan prestatutako probak egin dituzte, eta normalean ikasle hauei arreta ematen dieten irakasleek aplikatu eta zuzendu dituzte.

Ikasle bakoitzaren txosten pertsonalizatua egin da, eta bertan lehen ikasmilako ikaskuntzako estandarren lorpena jaso da eta, kasua bada, etapako bigarren ikasmilakoena. Ez bada lehen ikasmilako estandarretara iristen, Haur Hezkuntzako etapako ebaluazio irizpideak hartuko dira erreferentzia gisa.

Dagokion atalean CE siglak idatziko dira, lortu den maila zehaztuz (Haur Hezkuntzako 2.a, 3.a, Lehen Hezkuntzako 1.a, 2.a).

Beren emaitzak EDUCA plataforman sartuak dituzten ikasleen datuak erakusten ditu hurrengo taulak.

Ondoko taulan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren munta ikusarazten duten datuak:

1.2 Matrikularen eta parte-hartzearen datuak

a) Orokorrak

	Lehen Hezkuntza 3. ikasmila	
	Kop.	%
Matrikula, osotara	6.646	100
Emaitzak EDUCAn dituzten ikasleak	6.281	94,51
Emaitzak EDUCAn ez dituzten	365	5,49

b) Ereduen arabera

	A/G eredia		B/D eredia	
	Kop.	%	Kop.	%
Matrikula, osotara	4.792	100	1.854	100
Proba egin zuten ikasleak	4.597	95,93	1.684	90,83

c) Gaitasunaren arabera

	Proba egin dute
	Kop.
Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna	4.588
Euskarazko hizkuntza gaitasuna	1.684
Matematika gaitasuna	6.281
Ingelesezko hizkuntza gaitasuna	6.281

2. Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna

Probak bi zati izan ditu: irakurmena eta testuak ekoizteko gaitasuna.

Zati bakoitzaren proba goiz desberdin batean egin zen.

Testuak ekoizteko gaitasunaren zatian idazlan libre bat idatzi behar izan dute, pertsonak eta animaliak tartean diren istorio, abentura edo ipuin baten gainean.

Idazlanean funtsezko hiru alderdi hauek baloratu dira: Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna; denek munta bera izan dute puntuazio osoan.

Hizkuntza gaitasuneko puntuazio osoa lortu da irakurmenari %70eko pisua emanez eta testu idatziak ekoizteko gaitasunari %30ekoa.

2.1. *Gaztelaniazko irakurmena.*

2.1.1 *Item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa*

Irakurmena bi koaderno bereizitan banatu zen; lehenengoa jolasaldiaren aurretik egin zen eta bigarrena jolasaldiaren ondoren. Lehenengo probak bi testu edo estimulu izan ditu, eta horietatik irakurmeneko ondoko galderak atera ziren: “*El Cervatillo*” testutik 12 item atera ziren, eta “*Otra leyenda del arroz*” izenburuko bigarren testutik 4 item. Probaren bigarren zatiak 4 testu zituen, aurrekoak baino laburragoak. “*Una silla con toalla...*” testutik 6 item atera ziren, “*El dentista de la selva*” testutik 4 item, “*El elefante asiático*” testutik 3 item eta, azkenik, “*Cómo hacer barquitos de huevo*” testutik beste 3 item.

Oсотara izan diren 32 itemetatik 27k puntu 1eko balioa izan dute eta 5ek 2 puntukoa, eta kasu horretan puntuazio partzialak ere onartu dira.

32 itemei zegozkien atazek banakako ebaluazioaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuekin dute lotura.

Itemen zailtasuna ez da beti bera izan; batzuk oso errazak gertatu dira (zuzen %91,33k erantzundakoak) eta beste batzuk zailak (ikasleen %46,47k baino ez dituztenak zuzen erantzun).

Ondoko taulan azaltzen dira gaztelaniazko irakurmen probako itemen ezaugarri zenbait: *tipologia (irekia edo itxia), emandako gehienezko puntuazioa, zailtasun-indizea eta ebaluaturiko prozesua.*

Item zk.	Irekia/ Itxia	Gehienezko puntuazioa	Zailtasun-indizea: zuzen erantzundakoen %a	Ebaluatutako prozesua
1	Irekia	2	59,12	Ulermen orokorra
2	Irekia	1	87,93	Interpretazioa
3	Itxia	1	68,02	Interpretazioa
4	Irekia	1	77,50	Interpretazioa
5	Irekia	1	74,76	Interpretazioa
6	Itxia	1	46,47	Informazioa bilatzea
7	Itxia	1	74,52	Informazioa bilatzea
8	Itxia	1	85,60	Informazioa bilatzea
9	Irekia	1	87,69	Informazioa bilatzea
10	Irekia	1	57,18	Interpretazioa
11	Itxia	1	69,16	Informazioa bilatzea
12	Irekia	2	54,38	Interpretazioa
13	Irekia	1	67,98	Informazioa bilatzea
14	Irekia	2	73,33	Ulermen orokorra
15	Itxia	1	65,91	Informazioa bilatzea
16	Irekia	1	50,94	Formaren gaineko hausnarketa
17	Itxia	1	78,03	Formaren gaineko hausnarketa
18	Itxia	1	86,35	Informazioa bilatzea
19	Irekia	1	61,92	Informazioa bilatzea
20	Irekia	1	85,69	Informazioa bilatzea
21	Itxia	1	83,82	Informazioa bilatzea
22	Itxia	1	63,56	Formaren gaineko hausnarketa
23	Irekia	1	64,33	Interpretazioa
24	Itxia	1	91,33	Informazioa bilatzea
25	Itxia	1	85,49	Interpretazioa
26	Irekia	1	60,80	Interpretazioa
27	Itxia	1	63,10	Informazioa bilatzea
28	Irekia	1	83,03	Informazioa bilatzea
29	Irekia	1	70,61	Interpretazioa
30	Itxia	1	79,24	Informazioa bilatzea
31	Irekia	2	63,48	Ulermen orokorra
32	Irekia	2	47,45	Informazioa bilatzea
OSOTARA		37		

2.1.2 Irakurmen mailen zenbakizko zehaztapena

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio globala erdiestea, hurrengo taulan adierazten den bezala:

	Gaztelaniazko irakurmena Puntuazio-tarteak
Gutxiegia	0-16
Nahikoa	17-21
Ongi	22-26
Oso ongi	27-31
Bikain	32-37

2.1.3 Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraiantzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, zeren gainean hausnar daitekeen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua doitzeko.

Adibidez, 24. itema, informazioa bilatzeko prozesu bat, erraza izan zaie ikasleen %91,33ri; 4. itema ez zaie hain erraza izan, interpretatzea eskatzen zuen; 19. itema nahiko zaila suertatu da; eta informazioa bilatzeko prozesu bat planteatzen duen 6. itema zaila suertatu da oro har.

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta itemaren izaera irekia/itxia garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan.

Ondoko taulak probako itemen diskriminazio-indizea erakusten du:

Gaztelaniazko irakurmena	
Item zk.	Diskriminazio-indizea
1	,432
2	,362
3	,380
4	,359
5	,424
6	,033
7	,313
8	,373
9	,431
10	,264
11	,308
12	,472
13	,415
14	,470
15	,352
16	,333
17	,260
18	,290
19	,386
20	,277
21	,390
22	,332
23	,299
24	,240
25	,226
26	,255
27	,305
28	,398
29	,275
30	,373
31	,485
32	,227

BI (bikain) gaitasun mailako item baten adibidea.

Halakoa da 32. itema, 0, 1 edo 2 puntuko balorazioa izan dezakeena. Kasu honetan gehienezko balorazioaz ari gara, alegia, itema 2 punturekin baloratzen den kasuaz. Hainbat erantzun izan dezakeen itema da eta 2 puntuko balorazioa du 2 laukitxo hauek bakarrik markatzen direnean: *Tenedor* eta *Cucharilla*

32.- Para seguir los pasos de la receta necesitas varios utensilios de cocina. Marca con una X los que necesitas según la receta:

- Tenedor
 Peso de cocina
 Cucharilla
 Sartén
 Batidora

Mota	Irekia
Erantzuna	<i>Tenedor</i> eta <i>Cucharilla</i>
Puntuazioa	2 puntu
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	Bikain
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, BI mailan	62,51
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	47,45
Diskriminazio-indizea	0,227

2.1.4. Emaidza orokorrak

Estatistikoaren taula (gaztelaniazko irakurmena)

Kopuru osoa	6.682
Gaitasun proben kopurua	4.588
Neska kopurua	2.287
Mutil kopurua	2.301
Puntuaziorik txikiena	3
Puntuaziorik handiena	37
Batez besteko puntuazioa	25,6
Desbideratze tipikoa	6,4
Nesken batez bestekoa	26,0
Mutilen batez bestekoa	25,4
GU maila (%)	9,9
NA maila (%)	14,0
ON maila (%)	23,8
OO maila (%)	33,2
BI maila (%)	19,1

Alderdi azpimarragarriak:


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik altuena 37 puntukoa izan da eta txikiena 3 puntukoa.
- Desbideratze tipikoa 6,4koa da, hau da, batez besteko puntuazioaren %25; balio ertain-altua da eta horrek esan nahi du ikasleen puntuazioak dezente aldentzen direla batez bestekotik.

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

GU maila (%)	9,9
NA maila (%)	14,0
ON maila (%)	23,8
OO maila (%)	33,2
BI maila (%)	19,1

Irudikapen grafikoa



Alderdi azpimarragarriak

- Ikasleen hiru laurdenek baino gehixeagok (%76,1) erdietsi dituzte desiratutako mailak (ON, OO eta BI), eta gai dira beren adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.
- 10 ikasletik 1ek neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako.


Banaketa, sexuaren arabera

Neskek mutilek baino 0,6 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori arina dela esan daiteke, desbideratze tipikoaren 1/4 baino gutxiago baita.

	Batez besteko puntuazioa
Nesken batez bestekoa	26,0
Mutilen batez bestekoa	25,4


Irudikapen grafikoa sexuka

Gaztelaniazko irakurmena



2.1.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio orokorren banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa honelakoa izan da banaketa normalarekin (lerro kurbatua) alderatuta:

- Normala baino zertxobait zorrotzagoa edo ez hain laua; puntuazioen pilaketa handiagoa da batez bestekoaren inguruan. Kurtosia 0,199 da. Kurtosiaren errore estandarra 0,072 da.
- Asimetriko negatiboa (banaketaren ezkerreko muturra eskuinekoa baino luzeagoa da). Fisherren asimetria koefizientea -0,773 da, eta haren errore estandarra 0,036.

2.2. Gaztelaniazko ekoizpen idatzia

Ikasleek egindako lan idatzian ezinbesteko hiru alderdi hauek baloratu dira: *Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna.*

Puntuazioak emateko ebaluazio irizpideak ondoko hauek izan dira:

Alderdi bakoitzari zenbakizko puntuazio bat eman zaio, puntu 1 eta 4 puntu artean.

	1. puntuazioa	2. puntuazioa	3. puntuazioa	4. puntuazioa
Aurkezpena eta ortografia	Argiro desegokia 3. ikasmailerako. Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografiko asko ditu.	1. eta 3. puntuazioen arteko erdibidean da. 3. mailako eskakizunetako hiru betetzen ditu.	3. ikasmailerako maila egokia du, eskakizun hauek betetzen dituelako: <ul style="list-style-type: none"> • Garbi idatzita dago (ez da urratirik...) • Letra argia eta erregularra • Ongi zehazturiko marjinak • 4-7 akats testu laburretan (10-15 lerro). 8-10 akats testuak luzeagoak direnean. 	Bikaintasuna erakutsi du, 3. ikasmailan eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko lau eskakizunak bikainki betetzen ditu.
Istorioaren koherentzia	Koherentziarik eta egiturarik gabeko istorioa kontatu du. Edukiari dagokionez, justifikatu gabeko jauziak daude.	3. puntuazioko eskakizunetako lau betetzen ditu.	Eskakizun hauetako 5-6 betetzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> • Egitura argia: aurkezpena, korapiloa eta amaiera. • Hiru paragrafo ditu, gutxienez. • Bilakaera tematikoa: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsik ere; istorioa erraz segitzen da. • Perpaus ideia osoak adierazten dituzte. • Perpaus batzuk besteekin ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa). • Pertsonaiak eta haien ekintzak ongi zehazturik daude (ulertzen da zeinek zer egiten duen). 	3. puntuazioko eskakizunak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazkiak ezaugarri hauek ditu: sormena, argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (orduan; geroago; hala ere, etab.; ez da behar ez den errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa).
Zuzentasun gramatikala	Testua ez da egituratu perpaus argiro zehaztu eta bereizietan. Ez du kode idatzia ahozko kodetik bereizi: hitz egiten duen bezala idatzi du. Akats gramatikal asko egin ditu.	3. puntuazioko eskakizunetako 3-4 bete ditu.	Eskakizun hauetako 5-6 betetzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> • Sintaxi aldetik ongi eraturiko perpausekin egituratutako idazkia. • Aditz-denborak zuzen erabili ditu. • Aditz komunztadura (subjektua-predikatua) errespetatu du. • Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez. • Argi eta garbi bazterrean utzi du lagunarteko eta ahozko hizkuntza. • Pertsonai eta ekintzei buruzko informazio interesgarria ematen duten adjektiboak eta adberbioak erabili ditu. 	Bikaintasuna erakutsi du, 3. ikasmailan eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko eskakizun guztiak (6) bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazkian ez da akats gramatikalik, hiztegia aberatsa da eta sintaxia menderatzen dela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testuak oso ongi idatzita daude, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 3. ikasmailan gaudela.

2.2.1 Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin batean sartzeko ekoizpen idatziko ariketaren 1., 2. eta 3. itemetan erdietsitako puntuazio zuzenen batura begiratzen da. Taula honen arabera esleitzen zaie maila.

	Gaztelaniazko idazmena Puntuazio-tarteak
GU	0 - 4
NA	5 - 6
ON	7 - 8
OO	9 - 10
BI	11 - 12

2.2.2 Gaztelaniazko ekoizpen idatziaren emaitza orokorrak.


Kopuru osoa	6.682
Gaitasun proben kopurua	4.571
Neska kopurua	2.280
Mutil kopurua	2.291
Puntuaziorik txikiena	3
Puntuaziorik handiena	12
Batez besteko puntuazioa	8,1
Desbideratze tipikoa	2,3
Nesken batez bestekoa	8,4
Mutilen batez bestekoa	7,9
GU maila (%)	8,8
NA maila (%)	15,4
ON maila (%)	28,3
OO maila (%)	30,4
BI maila (%)	17,0

2.2.3 Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da idazmeneko maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Idazmen maila bakoitzeko ehunekoa
GU maila (%)	8,8
NA maila (%)	15,4
ON maila (%)	28,3
OO maila (%)	30,4
BI maila (%)	17,1

Irudikapen grafikoa



Alderdi azpimarragarriak

- Ikasleen %75,8k erdietsi ditu nahi izatekoak diren ON, OO eta BI mailak eta, beraz, gai dira haien adinerako egokia den testu bat idazteko.
- Ikasleen %9 inguruk neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako.
- Ikasleen %15 tarteko egoeran dira, testuen ekoizpena hobetu beharra dute.


2.2.4 Banaketa, sexuaren arabera

Neskek mutilek baino 0,5 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori arina dela esan daiteke, desbideratze tipikoaren 1/4 baino gutxiago baita.


	Batez besteko puntuazioa
Nesken batez bestekoa	8,4
Mutilen batez bestekoa	7,9

Irudikapen grafikoa sexuka

Gaztelaniazko ekoizpen idatzia



2.2.5. Puntuazioen banaketa.



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa honelakoa izan da banaketa normalarekin (lerro kurbatua) alderatuta:

- Normala baino zapalagoa; horrek esan nahi du puntuazioak ez daudela oso pilatuta batez bestekoaren inguruan. *Kurtosia* -0,527 da. Kurtosiaren errore estandarra 0,072 da.
- Asimetriko negatiboa (banaketaren ezkerreko muturra eskuinekoa baino luzeagoa da). Fisherren asimetria koefizientea -0,318 da, eta haren errore estandarra 0,036.

3. Euskarazko hizkuntza gaitasuna

Probak bi zati izan ditu: irakurmena eta testuak ekoizteko gaitasuna.

Zati bakoitzaren proba goiz desberdin batean egin zen.

Testuak ekoizteko gaitasunaren zatian idazlan libre bat idatzi behar izan dute, pertsonak eta animaliak tartean diren istorio, abentura edo ipuin baten gainean.

Idazlanean funtsezko hiru alderdi hauek baloratu dira: *Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna*; denek munta bera izan dute puntuazio osoan.

Euskarazko hizkuntza gaitasuneko puntuazio osoa lortu da irakurmenari %70eko pisua emanez eta testu idatziak ekoizteko gaitasunari %30ekoa.

3.1. Euskarazko irakurmena

3.1.1 Item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa

Irakurmena bi koaderno bereizitan banatu zen; lehenengoa jolasaldiaren aurretik egin zen eta bigarrena jolasaldiaren ondoren. Lehenengo proba "Otsoko eta lapurra" izenburuko testu edo estimuluan oinarritu zen, eta irakurriaren ulermeneko 13 galdera egin ziren hari buruz. Probaren bigarren zatiak 4 testu zituen, aurrekoak baino laburragoak. "Behin joan nintzen..." testuaren gainean 4 item galdetu ziren, "Karraspio" testuaren gainean 3 item, "Koko flana" testuaren gainean 4 item, eta, azkenik, "Tximeleten sailkapena" testuaren gainean 4 item.

Osotara izan ziren 28 itemetatik 26k puntu 1eko balioa izan dute, batek 2 puntukoa eta beste batek 3 puntukoa, eta kasu horietan puntuazio partzialak ere onartu dira.

28 itemei zegozkien atazek banakako ebaluazioaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuekin dute lotura.

Itemen zailtasuna ez da beti bera izan; batzuk oso errazak gertatu dira (zuzen %96,44k erantzundakoak) eta beste batzuk zailak (ikasleen %40,35ek baino ez dituztenak zuzen erantzun).

Ondoko taulan azaltzen dira euskarazko irakurmen probako itemen ezaugarri zenbait: *tipologia (irekia edo itxia), emandako gehienezko puntuazioa, zailtasun-indizea eta ebaluaturiko prozesua*.

Itemen ordena bera da taulan eta probako koadernotxoan.

Item zk.	Irekia/ Itxia	Gehienezko puntuazioa	Zailtasun- indizea: zuzen erantzundakoen %a	Ebaluatutako prozesua
1	Itxia	1	86,46	Informazioa bilatzea
2	Itxia	1	70,01	Informazioa bilatzea
3	Itxia	1	76,72	Interpretazioa
4	Itxia	1	46,02	Informazioa bilatzea
5	Itxia	1	63,30	Interpretazioa
6	Irekia	1	58,25	Interpretazioa
7	Irekia	1	48,10	Interpretazioa
8	Irekia	1	59,20	Interpretazioa
9	Irekia	1	43,94	Ulermen orokorra
10	Itxia	1	56,29	Interpretazioa
11	Itxia	1	65,08	Interpretazioa
12	Irekia	1	47,51	Edukiaren gaineko hausnarketa
13	Itxia	1	72,92	Formaren gaineko hausnarketa
14	Irekia	1	96,26	Informazioa bilatzea
15	Itxia	1	93,29	Formaren gaineko hausnarketa
16	Irekia	1	75,30	Interpretazioa
17	Itxia	1	76,07	Ulermen orokorra
18	Irekia	1	90,20	Informazioa bilatzea
19	Itxia	1	51,54	Informazioa bilatzea
20	Itxia	1	62,77	Interpretazioa
21	Itxia	1	79,57	Interpretazioa
22	Irekia	1	72,39	Ulermen orokorra
23	Irekia	2	40,35	Interpretazioa
24	Itxia	1	54,63	Interpretazioa
25	Itxia	1	70,37	Informazioa bilatzea
26	Irekia	3	67,74	Interpretazioa
27	Irekia	1	96,44	Interpretazioa
28	Irekia	1	70,84	Edukiaren gaineko hausnarketa
OSOTARA		31		

3.1.2 Irakurmen mailen zenbakizko zehaztapena

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio globala erdiestea, hurrengo taulan adierazten den bezala:

Euskarazko irakurmena Puntuazio-tarteak	
Gutxiegia	0-11
Nahikoa	12-16
Ongi	17-19
Oso ongi	20-26
Bikain	27-31

3.1.3. Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraiantzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, zeren gainean hausnar daitekeen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua doitzeko.

Adibidez, 27. itema, interpretazio prozesu bat, erraza izan zaie ikasleen %96,44ri; 23. itema aldiz, hau ere interpretazio prozesua, oro har zaila suertatu da, ikasleen %40,35ek bakarrik eman baitute erantzun zuzena.

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta itemaren izaera irekia/itxia garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan.

Ondoko taulak probako itemen diskriminazio-indizea erakusten du:

Euskarazko irakurmena	
Item zk.	Diskriminazio-indizea
1	,298
2	,368
3	,399
4	,319
5	,309
6	,294
7	,351
8	,367
9	,454
10	,440
11	,472
12	,426
13	,354
14	,235
15	,267
16	,240
17	,276
18	,340
19	,200
20	,065
21	,292
22	,357
23	,434
24	,313
25	,284
26	,467
27	,175
28	,383

BI (bikain) gaitasun mailako item baten adibidea.

Halakoa da 23. itema, 0, 1 edo 2 puntuko balorazioa izan dezakeena. Kasu honetan gehienezko balorazioaz ari gara, alegia, itema 2 punturekin baloratzen den kasuaz. Hainbat erantzun izan dezakeen itema da.

23.- Errezeta zortzi lagunentzat da. Lau lagunendako flana prestatu beharko bazenu, zer eginen zenuke?

.....

.....

.....

Mota	Irekoa
Erantzuna	<p>Kantitatea zehatz-mehatz adierazten du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Aipatzen diren kantitateen erdia bota.</i> • <i>Gauza guztien erdia jarri.</i> • <i>3 arrautza, litro laurden esne, 100g azukre, 100g esne kondentsatuta eta 50g koko bota</i> • <i>Errezetaren kantitateak zati 2</i> • <i>Osagai bakoitzetik erdia jarri</i> <p>...</p>
Puntuazioa	2 puntu
Irakurketa prozesua	Interpretazioa
Gaitasun maila	Bikain
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, BI mailan	72,13
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	40,35
Diskriminazio-indizea	0,434

3.1.4. Emaidza orokorrak

Estatistikoen taula (euskarazko irakurmena)

Kopuru osoa	6.682
Gaitasun proben kopurua	1.695
Neska kopurua	841
Mutil kopurua	854
Puntuaziorik txikiena	1
Puntuaziorik handiena	31
Batez besteko puntuazioa	20,6
Desbideratze tipikoa	5,6
Nesken batez bestekoa	21,1
Mutilen batez bestekoa	20,2
GU maila (%)	6,4
NA maila (%)	16,1
ON maila (%)	17,3
OO maila (%)	44,7
BI maila (%)	15,5

Alderdi azpimarragarriak:


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik altuena 31 puntukoa izan da eta txikiena 1 puntukoa.
- Desbideratze tipikoa 5,6koa da, hau da, batez besteko puntuazioaren %27,2; balio altua da eta horrek esan nahi du ikasleen puntuazioak dezente aldentzen direla batez besteko puntuaziotik.

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharizanak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

GU maila (%)	6,4
NA maila (%)	16,1
ON maila (%)	17,3
OO maila (%)	44,7
BI maila (%)	15,5

Irudikapen grafikoa



Alderdi azpimarragarriak

- Ikasleen hiru laurdenek baino gehixeagok (%77,5) erdietsi dituzte desiratutako mailak (ON, OO eta BI), eta gai dira beren adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.
- Ikasleen %6k neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako.


Banaketa, sexuaren arabera

Neskek mutilek baino 0,9 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori arina dela esan daiteke, desbideratze tipikoaren 1/4 baino gutxiago baita.

	Batez besteko puntuazioa
Nesken batez bestekoa	21,1
Mutilen batez bestekoa	20,2


Irudikapen grafikoa sexuka

Euskarazko irakurmena



3.1.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio orokorren banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa honelakoa izan da banaketa normalarekin (lerro kurbatua) alderatuta:

- Normala baino zapalagoa, puntuazio gutxiago daude pilatuta batez bestekoaren inguruan. Kurtosia -0,293 da. Kurtosiaren errore estandarra 0,119 da.
- Asimetriko negatiboa (banaketaren ezkerreko muturra eskuinekoa baino luzeagoa da). Fisherren asimetria koefizientea -0,43 da, eta haren errore estandarra 0,059.

3.2. Euskarazko ekoizpen idatzia

Ikasleek egindako lan idatzian ezinbesteko hiru alderdi hauek baloratu dira: *Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna.*

Puntuazioak emateko ebaluazio irizpideak ondoko hauek izan dira:

Alderdi bakoitzari zenbakizko puntuazio bat eman zaio, puntu 1 eta 4 puntu artean.

	1. puntuazioa	2. puntuazioa	3. puntuazioa	4. puntuazioa
Aurkezpena eta ortografia	Oso desegokia 3. ikasmailarako. Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografikoak asko dira.	1. eta 3. puntuazioen arteko maila du. 3. mailaren eskakizunetako hiru betetzen ditu.	Kurtso honetarako maila egokia du, eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> • Garbi idatzita dago (ez da urraturik...) • Letra argia eta erregularra da. • Marjinak ongi zehazturik daude. • Ortografia: 4-7 akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s idazterakoan egindako 5 akatseko 1 kontatzen da), testu laburrak direnean (10-15 lerro). 8-10 akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean. 	Bikaintasuna erakusten du, 3. ikasturtean eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu.
Istorioaren koherentzia	Koherentziarik eta egiturarik gabeko istorioa kontatu du. Edukiari dagokionez, justifikatu gabeko jauziak daude.	3. puntuazioko eskakizunetako lau betetzen ditu.	Eskakizun hauetatik, 5-6 bete ditu: <ul style="list-style-type: none"> • Egitura argia: aurkezpena, korapiloa eta amaiera. • Hiru paragrafo ditu, gutxienez. • Bilakaera tematikoa: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman; istorioa erraz segitzen da. • Perpausak ideia osoak adierazten dituzte. • Perpaus batzuk besteekin ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa). • Pertsonaiak eta haien ekintzak ongi zehazturik daude (badaki zeinek zer egiten duen). 	3. puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazkiak ezaugarri hauek ditu: sormena, argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (orduan; geroago; hala ere, etab.; ez da behar ez den errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa).
